

• ASTERO GAIA •

Arkeologia eta historia ondarea

Iruña-Veleiak merezi du

“Zer da Iruña-Veleia?” galdetu diegu ingurukoei. Eta erantzunetan “iruzurra” izan da nagusi. Erreportaje honen helburua ez da eztabaidan nahastea, erantzun hori aldatzen ahalegintzea baizik. Iruña-Veleiara joan gara eta askoz gehiago dela esan digu, polemikaren itzalak ikusten uzten ez digun altxorra, Euskal Herriko aztarnategi nagusietakoa.

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Argazkiak: Dani Blanco

Ponpeia Valentinarene etxea delakoaren patioaren mosaikozko zoladura, atzean Tresponde herria duela.





EGUN LAINOTSUA DA, GRISA, eta Iruña-Veleiako aztarnategiaren ikuspegia goibela da. Ez dago ez indusketan ari den arkeologorik, ez bisitaririk. Inor baimenik gabe sar ez dadin zaintzen duen segurtasun langilea baino ez.

Egunkarietako titularretan agertzeak berri pozgarria izan beharko luke hainbestetan gutxietsita dagoen historia eta arkeologia ondarearentzat. Baina Iruña-Veleiari kalte egin dio bat-bateko ospeak. 2005 eta 2006ko kanpainetan aurkitu eta gero iruzurtzat jo dituzten inskripzioen gaineko eztabaida betean, aurkikuntza jakin horiez gain aztarnategi eskerga dagoela eta mende askotako historiaren lekuko dela ahaztu dugu. Eta larreez eta lur sailez inguratuta, zaila da Zadorra ibaiak eratutako meandro honetan garai batean hiri bat zegoela imajinatzea.

Baina Felix Lopez Arabako Foru Aldundiko Historia, Arte eta Arkeologia Ondarearen zerbitzuburuaren eskutik egin dugu bisita eta, polemikak albo batera utzita, arrazoi mordoa azaldu digu aztarnategiaren garrantziaz jabetzeko. Lehenik eta behin, “legeak berak ezartzen du Iruña-Veleia munta handiko aztarnategia dela”, dio Lopezek. Duela ia mende bat, 1915ean, Espainiako Ondare Nazional izendatu zuten. Eta 1985etik aurrera, EAEko kultura

ondasun kalifikatua da, eta babes mailarik handiena du.

1.500 urteko lekukotza lur azpian

Bestalde, nagusiki erromatar garaiko aztarnategitzat jotzen bada ere, Brontze Aroaren amaieratik (K.a. X. mendea) Erdia Arorako lehen mendeetara (K.o. V.-VI. mendeak) bitarteko arrastoak biltzen ditu Iruña-Veleiak, 1.500 urte inguruko arrastoak, alegia.

Harresiak babestutako *oppidum*ean sartu baino lehen, sarreratik ezkererantz jo dugu, harresia inguratuz, eta Felix Lopezek parean azaldu zaigun muinoari erreparatzeko esan digu: “Arkiz da, Brontze Aro amaierako jatorri indoeuroparrek herrixka”. Aztarnategiko arrasto zaharrenak kokatzeaz gain, Iruña-Veleiaren benetako azaleraz jabetzen hasi gara.

Aurrerago, Burdin Aroan ere eremu hau populatuta egon zen. Baina loraldia Erromatar Inperioaren garaian iritsi zen, K.o. I., II. eta III. mendeetan. Iruña-Veleia *Ab Asturica Burdigalam* erromatar galtzadan zegoen, hots, *Asturica Augusta* (Astorga, León) eta *Burdigala* (Bordele) gune garrantzitsuak lotzen zituen bidean. Zenbait adituren arabera, 10.000 biztanle izatera iritsi zen inguruko merkataritza bide nagusietakoan

Aztarnategi zabalaren zati txiki bat baino ez da industu. Iruña-Veleiak erantzun asko dauzka gordeta, arrastoak ez dira hondatu, alderantziz, eta horregatik aztarnategi birjina da, potentzial izugarria duena



Ezkerreko argazkian, Ponpeia Valentinaren *domusa* deiturikoaren zati bat ageri da. Bertan, ederki antzematen da bat ez datozen egiturak bata bestearen gainean daudela. Horrek hainbat garaitako eraikinak daudela esan nahi du. Arkeologoak garbi izan behar du bakoitza zer garaitakoa den eta nolako lehentasuna duen. Horren eskuinean, Tresponde eta aztarnategia lotzen dituen Zadorra gaineko zubia, erromatar garaikoa baina, gerora, Erdi Aroan berreraikia. Zubiaz bestaldeko zuhaitzian hiri bat zegoen duela bi mila urte.

ederki kokatuta zegoen hiri handi hau. “Zaila da esatea –dio Lopezek– eraikinak noraino hedatzen ziren eta zenbat eraikin publiko zeuden ikusi beharko da gutxi gora-beherako biztanle kopurua kalkulatzeko”.

Baina Inperioaren krisialdiarekin bat, erromatar hiria txikitu egin zen, biztanle kopuruak behera egin zuen, azalerak ere bai eta, gatazka gero eta sarriagoek gunea harresiz babestera behartu zituen bertako biztanleak. Hala, hiria ez zutela harresiek mugatzen ulertu dugu, harresiak gero eraiki zituztela eta, beraz, Veleia erromatarra harresitutako kaxkoa baino askoz handiagoa zela. Horrez gain, harresiak eraiki ondorengo garaia oso interesgarria dela adierazi du Lopezek: “Erromatarren ondorengo garaia, Erdi Aro-

aren hasiera, garai iluntzat jotzen da, teknikan eta kulturen atzera egin zela onartu ohi da. Baina arrasto horiek adierazten dute ez zela hain iluna, erromatar garaiko teknologia eta distira ez zela erabat galdu”.

Aztarnategi birjina

Halaber, Iruña-Veleiak beste aukera bat eskaintzen die ikerlariei. “Hirian erromatar hiritarrak bizi ziren, baina inguruan bertako biztanleak ere baziren. Hortaz, aztarnategiari esker erromatarren eta biztanle autoktonoen arteko harremanetan sakondu ahal izango da”. Zer ekarpen egin zieten erromatarrek bertakoei? Eta bertakoei erromatarrei?

Galdera hauek eta beste asko erantzuteke daude, aztarnategi zabalaren zati txiki bat baino ez baita industu gaur arte. Eta Iruña-Veleiak erantzun asko dauzka gordeta. Izan ere, antzina erromatar hiriak izandakoak gaur egun gunea populatuak dira oraindik. Egungo Iruña, esaterako, Ponpaoloren gainean eraikia dago. Ondorioz, arrasto ugari hondatu edo desagertu egin dira, halabeharrez. Baina Iruña-Veleiaren gainean ez da eraiki. Erdi Aroaren hasieran populazio gunea utzi zutenetik, laborantza lurra izan dira hauek eta, horri esker, arrastoak ez dira hondatu, alderantziz, egoera onean gorde dira.

Horrenbestez, Iruña-Veleia, “gure ondare arkeologikoaren ikur bat izateaz gain, aztarnategi birjina da, potentzial izugarria duena”.

Hutsetik hastea

Indusketa lanak etenda daude aztarnategian, baina Arabako Foru Aldundian lanean ari dira, erakunde horrek baitu Iruña-Veleiaz arduratzeko eskumena. Aztarnategiaren etorkizuna zehazteko plan gidaria prestatzen ari

Asko egin arren, askoz gehiago dago egiteko

IRUÑA-VELEIAREN lehen erreferentzia historiografikoa XVI. mendekoa da, Diego de Salvatierraren eskuizkribuan jasoa.

Aztarnategian lehenengoz XIX. mendean egin ziren lanak, dakigunez behintzat, Florencio Janer buru zuen Arabako Monumentuen Batzordearen eskutik.

1900. urte inguruan, Jaime de Verastegui presbiteroa harresiaz barruko eremuaren iparraldean ikerketa lanak egiten hasi zen. Lan horien ondorioz, egitura handi baten arrastoak azaleratu ziren. *Castellum aquae* moduan identifikatu zuten orduan; Goi Inperioko eraikin bat zen, gerora, erromatarren gainbehera garaian eraikitako harresiak hartu zuena.

Lanak ez ziren berriro abiatu joan den mendearen erdira arte. 1949tik 1954ra Gratiniano Nietok hainbat

sektore industeari ekin zion. Zenbait eraikin aurkitu eta garbitu zituen esparru harresituan, eta harresiaren kanpoko zati bat ere garbitzen aritu zen.

Indusketa lanak berriro eten eta gero, 1974-75ean Juan Carlos Elorzak kanpaina burutu zuen harresiaren sarbide nagusiaren inguruan.

Azken urteetan Lurmen enpresa aritu da aztarnategiaren indusketak egiten, Eliseo Gil buru zela.

Baina lanak duela ehun urte baino gehiago hasi arren, hainbat hektareako azalera duen aztarnategi zabalaren zati oso txiki bat baino ez da industu. Soilik *oppidum*ak 10 hektareako azalera du eta harresiz kanpo hiri erromatarrek askoz azalera handiagoa hartzen zuen. Beraz, Iruña-Veleiaren benetako dimentsioa eta garrantzia deskubritzeke dago.

Lorena Lopez de Lacalle, Arabako Euskara, Kultura eta Kirol diputatua

“Aztarnategia balioetsi behar dugu, aukera handiak dituela jakitun”

1985EAN Iruña-Veleia EAEko historia eta kultura ondarea izendatu zutenetik, aztarnategia babesteko eskumena Arabako Foru Aldundia-rena da.

2007ko abuztuan Lorena Lopez de Lacalle hartu zuen Euskara, Kultura eta Kirol saila, eta 2008ko urtarrilean zabalduetako ohar batean adierazi zuenez, “neure gain hartu nuen berehalakoan Iruña-Veleiako aztarnategiaren egoera orokorraren analisia”. Honela laburbildu zuen, ordean, egoera: “Hedabideetan grafitoen ‘aurkikuntza harrigarri’ buruzko informazio kontrajarriak agertzen ari ziren eta ohartu nintzen ez zegoela ikerketa proiekturik eta ez zegoe- la diziplina anitzeko talderik edo batzorderik”. Adie- razpenak nonahi agertzen ziren, egiaztapen zientifi- korik, ordea, ez. Hortaz, beti ere Lorena Lopez de Lacalleren esanetan, “eskua sartu beharra zegoen, ezinbestean”.

Horrenbestez, Iruña-Veleia Proiektuari buruzko aholkularitzarako zientzia batzordea jarri zuen abian.



ARGAZKI PRESS/JUANAN RUIZ

Eta handik aurrerakoak hedabideek jaso dituzte azken urte eta erdian.

Orain beste fase bat zabaldu da aztarnategian. ‘Iruña-Veleia auzia- ren’ fasea iragan martxoaren amaie- ran aldatu zen, duela hiru hilabete inguru, Aldundiak kereila aurkeztu eta bide penala abian jarri zuenean. Diputatuaren hitzetan, “horixe izan zen mugarria guretzat, horrek Justi- zia Administrazioaren esku ipini bai- tzuen kasua, erantzukizunak argitze- ko nahiko zantzu badagoelakoan”.

Auzia albo batera utzi eta aztar- nategiaren ardura dutenek ondare zati garrantzitsu horrekin hemendik

aurrera zer egin behar den aztertzen hasi dira. “Gauzak horrela, aztarnategi berriaren garaia ekin genion itxa- ropentsu, Euskal Herrian garrantzi handikoa dela jakin baitakigu. Gaur egun lanean ari gara bete-betean aur- tongo bigarren seihilekoan hasi beharreko fase berri horren prestakizunetan: balioetsi egin behar dugu aztarnategia, eta horretarako pauso sendoak emango ditugu gure legealdiaren bigarren zatian, Iruña-Veleia berriak aukera handiak dituela jakitun”.

dira. Hau da, hutsetik hasiko dira aztarnategia kudeatzen. Foru Aldundiko Historia, Arte eta Arkeologia Ondarearen zerbitzuburuaren hitzetan, “datorren urtean edo, gehienez 2011n prest egongo da”. Baina ez da induske- ta arkeologikoaren plangintzara mugatuko: “Diziplinartekotasuna oinarri izango du pla- nak, plan integrala izango da. Industu egin behar da, bai, baina egiturak babestu eta gorde behar dira eta ondarea herritarrei helarazi, eta horrek diziplina askotako adituen lana eskatzen du”.

Arkeologiari dagokionez, ez dute itsumustuan industen hasi nahi, batez ere eremua hain zabala izanda. Aurretiko azterketak ezin- bestekotzat jotzen dituzte, lehenta- sunak ezartzeko. Toki berean hain- bat garaitako egiturak eta arrastoak bat bestearen gainean daudenez, hor ere erabakiak hartu beharko dituzte. Iruña-Veleiako *oppidum*ean gaude, Ponpeia Valentinariaren etxea delakoan, eta mosaikoz estalitako patioaren inguruan garbi antzematen da hori: azaleko egituren azpian, antzinatasun handiagoa duten beste

egitura batzuk daude, gainekoekin bat ez dato- zenak. Horrelako kasuetan zer egin behar da? Sakontzen jarraitu geruza azalene- koen kalte- tan? Ala arrasto berrienak lehenetsi eta horiek gorde? Kasu bakoitzean balio gehien zer mai- lak duen erabaki beharko da.

Aztarnategia babesteko neurri batzuk hartu dituzte dagoeneko. Arabako Foru Aldundiak inguruko lur sailen jabetza lortu du, nolabaite- ko babes eraztuna osatuz. Azpiegiturak ere prestatzen ari dira pixkanaka. Ura eta elektrizitatea helarazi dituzte aztar- nategiraino, eraikin bat atontzen ari dira eta aparkalekua ere prestatzen hasiak dira, beti ere lurzoruari eta azpian egon daitezkeen arrastoei ahalik eta kalterik txikiena eraginez.

Iruña-Veleiaren aurpegia berritzea

Plan gidariak Iruña-Veleiako onda- rea herritarrei helaraztea ere barne hartzen du. Bisitaldi gidatuak, taile- rrak eta halakoak etenda daude eta bertara sartu nahi duenak Foru Aldundira jo behar du. Aztarnategia 4.000-5.000 pertsonen bisi- tatzen zuten urtean, eta azken urteetan,

**Aztarnategia 4.000-5.000
pertsonek bistatzen zuten
urtean, eta azken urteetan,
aurkikuntzek erakarrita,
10.000 inguruk. Baina
aztarnategiaren irudiak kolpe
gogorra jaso du**



Bi argazkiotan, Iruña-Veleiako harresia ageri da. Harresiak 1.200 metrotik gorako perimetroa du eta 10 hektareako azalera babesten du. K.o. III. mendearen bukaeran edo IV.aren hasieran eraiki zituzten, Erromatar Inperioaren gainbehera garaian. Harresia osatzeko hiri erromatarraren eraikin zaharren materialak berrerabili zituzten. Hala, argazkietan antzematen diren pieza biribilak zutabe zati birziklatuak dira.

ostraken aurkikuntzaren berriak erakarrita seguruenik, 10.000 ingurura iritsi ziren. La Hoyako herrixka da Arabako aztarnategi bisitatuena eta, Felix Lopezen ustez, “Iruña-Veleia ere maila horretara irits zitekeen eta, ondo bidean, iritsiko da”.

Baina aztarnategiaren irudiak kolpe gogorra jaso du eta arduradunek lan handia egin

beharko dute Iruña-Veleia eta iruzurra hitzak bereizteko.

Bisitaldia Tresponde eta aztarnategia lotzen dituen zubian amaitu dugu. Zubiaz bestaldean, zuhaizti mardul itxia dago, baina duela 2.000 urteko hiri bizia ikusten hasiak gara zuhaitzen atzean, lur azpian eta polemika guttien gainetik. ■

Ondarre
B A S E R R I A

20214 Segura (Gipuzkoa) • Tel: 943 80 16 54
ondarre@hispavista.com • www.nekatur.net/ondarre

